

284. alea - 2023ko maiatza
Debako herri aldizkaria

Zuhertza maiz. deba euskara
elkartea

Berriketan



36. ANTZERKI ASTEA

Sortzaileen erakusleiho eta zaleen topaleku



ASERORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

 www.facebook.com/adatsileak
 @adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k kutxabank



Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolkhome@gmail.com



SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ

Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak

670 411 444
centrolegal@sgoabogados.eus

BOHÈM

BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E.MAITE.BOHEM@GMAIL.COM



ARENA BAR



Argazkilaria Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



BERRIKETAN 284

2023ko maiatza

Azaleko irudiaren egilea:
Asier Bastida - Pez Limbo

AURKIBIDEA



8 ELKARRIZKETA
CAF-Elhuyar sarietako
bat lortu ondoren,
Mattin Urbietta
fisikariarekin solasean



12 HAUTESKUNDEAK
Bost hautagai-zerrenda
izango dira lehian
Deban maiatzaren 28ko
udal hauteskundeetan



15 ANTZERKI ASTEA
Ekainaren 1etik 11ra
bitartean, euskarazko
hamar antzezlan
izango dira ikusgai



23 ALBISTEAK
Herriko zenbait
saskibaloari eta futbolariek
taldek mailaz igotzea
lortu dute



24 ERREPORTAJEA
Ekainaren 16an eta
17an surfaren bueltako
Debadaba Festa
ospatuko da estreinakoz



28 AGENDA
Datozen asteotan
gingo diren jarduerak
eta ekimenak jaso
ditugu atal honetan

Zuhatzza euskara
elkartea

Berriketan

ARGITARATZAILEA
Zuhatzza Euskara Elkarte
HELBIDEA
Iifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketan@zuhatzza.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatzza.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAITZASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/200
ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak

Geldiunea, bai, baina aurrera egiteko

10 urte beteko ditu aurten Kolore Anitzek. Aurrez Debako udalekuetan aritutako hainbat hezitzailek eta Zuhatza Euskara Elkarteak elkarlanean sortu zuten taldea, ilusioz eta lan egiteko gogoz, haur eta gazteen artean euskarazko aisialdia sustatzeko helburuarekin.

Zuhatza-Kolore Anitzek urte osoko dinamika aktiboa duen arren, jakin badakigu egiten ditugun jarduera guztien artean arrakastatsuenak eta ikusgarrienak Kolorez Blai udalekuak direla. Hala ere, zoritxarrez, aurten ezingo da hala izan, ez baikara aurkeztu Debako Udalak udaleku irekiak antolatuzko helburuz egindako deialdira. Ez gara aurkeztu geldiune taktiko bat egitea beharrezkoa ikusten genuelako; geldiunea, bai, baina aurrera egiteko. Gure antolakuntza eredu birpentsatu nahi dugu, esku artean ditugun erronkei erantzuneko dien plangintza egoki bat osatzeko asmoz. Alegia, beste aisialdi esperientzia batzuen berri izatea, zer egiten den ikusi eta ikastea da helburua uneotan, baita udalekuetara indarberrituta itzultzea ere.

Esan bezala, aurten udalekuak antolatuko ez ditugun arren, Zuhatza-Kolore Anitzen dinamikak aurrera egingo du eta herrigintzan gure presentzia handitu nahi dugu, betiko legez, ekimenak modu boluntarioan eginez.

Azpinarratu nahiko genuke, bestalde, oso pozik gaudela bereziki ikasturte honetan antolatutako ekintza guztiek izan duten erantzun bikainarekin. Eta, bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu bidelagun izan zaituzteguni. Aurrerantzean ere gurekin jarraitzea espero dugu.

Zuhatza elkarteko Kolore Anitz Aisialdi Taldea

Elkartasun uholdea

Pozez jakin nuen aurten Deba eta Itziartik Senperera joan-etorria egiteko autobusa antolatu zela. Eta tristuraz hartu nuen, ondorenean, ekaitzak Herri Urratsen 40. urtemuga ospatzeko ametsa zapuztu zuela zioen berria.

Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko ikastolen aldeko Herri Urrats "mugatu bat" ospatu dute, baina bildutako diruarekin ezinezkoa izango zaie jaiak berak sortutako gastuei eta Seaskak dituen beharrezan aurrera egitea. Horregatik, ekarpen ekonomikoak egiteko deia egin diote euskal jendarteari, "Seaskari eta Ipar Euskal Herrian euskara ikasteko hautua egiten duen proiektuari aurrera egiten laguntzeko". Argia da mezua: "Elkartasun uholdea behar dugu zubiak eraikitzen jarraitzeko".

Lerro hauen bitartez, deialdi horrekin bat egin eta ekarpen ekonomikoak egiteko deia (edo gonbidapena) egin nahi nieke nik ere herritarrei. Bakoitzak ahal (edo egoki ikusten) duen neurrian egin dezake, eta laguntza oro izango da ongi etorria, dudarik gabe.

Ekarpenak egiteko hainbat bide zabaldu dituzte: herriurrats.eus/denda webgunean sartuta eta materiala erosita; Bizum bidez (Hego Euskal Herrian), dohaintzak egiteko atalera sartu, bilatzailean 'Herri Urrats' idatzi eta ekarpen ekonomikoak eginda; edota, besteak beste, honako kontu korronte hauetan dirua sartuta: ES87 3035 0059 8205 9073 1197 (Laboral Kutxa), ES98 2095 5045 8710 6117 7332 (Kutxabank), FR76 1027 8023 8500 0201 4340 107 (Crédit Mutuel).

Eskerrik asko alde z aurretik!

O.B.

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu z.k. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3°esk, Zarautz

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295





ANTTON AIZPURUA

Etxebizitza

Uda garaian debarrok bolo-bolo izaten dugu etxebizitzaren gaia ahotan. Azkenaldian, ordea, uda izan edo ez, hamaika aldiz ekarri dugu mingainera Elizburuko etxebizitza tasatuen afera. Batzuk haserre dira parte hartzeko baldintzak betetzen ez zituztelako eta, beraz, etorkizun hurbilean etxebizitza bat izateko aukera bideragarri ikusten ez dutelako. Baztertuen zerrenda ikustea besterik ez dago horretaz ohartzeko; parte hartzeko oinarriak betetzen ez zituztela jakitun ziren batzuek, badaezpada edo, izena eman zuten. Beste asko izena eman gabe, etsita geratu ziren zuzenean. Zozketan onartuak izan direnak korrokoiak ogi papurrei nola daude, zozketako emaitzak noiz helduko zain. Gehienek kolpea hartuko dute euren izen-abizenak zozketako zerrendan aukeratu gabekoen artean ikusten dituztenean.

Bien bitartean, herritar askok beren bizi proiektua *stand by*-ean dute. Askok dira lanean urteak daramatzaten arren, euren etxebizitza izateko zailtasunak topatu dituztenak eta zailtasunei aurre nola egin asmatu ezin dutenak. Ez diot ezer berririk etxebizitza tasatuek etxebizitzaren problematikan konponbiderik ez dakartela diodanean. Norbere bizi proiektua nahi bezala garatzeko aukera zozketa baten menpe izatea bidegabea da.

Horregatik, etxebizitzaren arazoa noraino iristen den behatu eta sortu litezkeen konponbideen inguruan hausnartu behar genuke. Egun ulergaitza izan daitekeena inoiz lortu ahal izateko: kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala izango den etxebizitza.

"Norbere bizi proiektua nahi bezala garatzeko aukera zozketa baten menpe izatea bidegabea da"

TaxiAlain Deba

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA

PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAZ

Ikasleak eta medikuak

OIHANA IRUSTA

Zergatik izenburuan ikasle eta ez paziente? Sokatira moduko bat dagoelako batxilergoaren eta anbulatorioen artean. Batxilergoan ikasleen faltan justifikazioa medikuen bitartez egiteko eskatu izan dute, orain zorionez hori aldatzen ari den arren (nire iritziz, gurasoak baikara nerabeen erantzule eta arduradun). Tamalez, oraindik ez da beti hala izaten eta oraindik ere medikuen ziurtagiria eskatu ohi da batxilergoan (azterketaren bat dagoenean, adibidez). Horrek tentsioa sortzen du mediku eta ikasle edo gurasoen artean.

Baina... mediku eta pazientearen arteko harremana nolakoa izan beharko litzatekeen aztertuz gero, ados egongo gara konfiantzazkoa eta gertukoak izatea garrantzitsua dela esatean. Pazienteak kontsulta bere gaitzez, sintomez, egonezinez... hitz egiteko gune lasai bat bezala sentituz gero, medikuak bisitaren arrazoiari buruzko detaile gehiago izan ahalko litzuzke eta, ondorioz, egoera hobeto ulertu eta tratamendu egokiagoa jarri ahalko lioke pazienteari.

Kontsulta barruko hartu-emanaren garrantzitsuagoa izan daiteke nerabeek beren kabuz egiten dituzten lehen bisitetan. Garaia zaila da berez (batzuentzat besteentzat baino gehiago) eta ezezagun bati bere gaitzak edo sintomak kontatu beharra ere zaila izan daiteke.

Kontua da sendagileak nekatuta daudela ikasleak justifikatzeaz, esku artean badituztelako garrantzitsuagoak diren beste artatze edota tramite batzuk, ziurrenik. Eta, noski, horrek ere tentsioa sortzen du irakasle -"guraso-ikasle"- medikuen artean. Kakotx



ARG.:THIRDMAN / PEXELS

artearen nahita jarri ditut guraso eta ikasleak, hauek hizki larritz idatzi ditudan IRAKASLE eta MEDIKUen artean baitaude, ezinbestean.

Ping-pong pilota izatea ez da inoiz gozoa izan, baina are gutxiago tentsio horren ondorioz gaixo dagoen gazte bati kontsulta bere medikuaren partetik harrera txar bat jasotzea tokatzen baldin bazaio. Norbera ondoezik egonik, gau txar baten ondoren, azterketa galdu eta irakasleek beste azterketa bat egingo ote dioten jakin gabe arduratuta, medikuarengana iritsi orduko, atletik sartu aurretik "beraiek ez daudela horretarako" eta "ea zergatik ez dagoen eskolara joateko bezala", edo "nire alaba gaixo egon zenean errekupeazioetara joan zen" bezalako esaldiak aurpegiratu zizkion.

Gutziz onartezina da, biak publikoak izanik, Osakidetzaren eta Hezkuntzaren arteko sokatiraren ondorioz nerabe batek bere medikuaren tratu hori jasan behar izatea. Nire galdera zera da: halako tratu bat jaso ondoren, nola bueltatu daiteke (nerabe zein heldu) kontsultara norbere kezkez lasai hitz egitera? Zer gertatuko litzateke nerabe horrek berak aurrerago antsietatea/depresioa/anginak/dermatitisa... pairatuko balitu? Bere medikuarekin kontatu ahal izango luke gaitz horiek gaingitu eta sendatzeko?

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, "osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, eta ez soilik afekzioirik edo gaixotasunik eza".



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
 KALITATEA
 Enpresa Registrada Nº 21051949
 NIVEL 2



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



ENRIKE IZAGIRRE

‘Ura juandakuan presia’

Sanferminetara gindoazen biharamunean. Aurreko egunean Roberto *Katillu*-rekin gosaldu nuen Zalburdin. Azken samarretan zebilen eta bizitasun apur bat ernarazte aldera, Iruñerakoa aipatu nion.

-Ño! -atera zitzaien- Pamplonara! Gaztetan motorrian juanda gauaz geu be: batakin barriketia, bestiakin kantuan, arduua eran eta... haren modukorik etxaok! Etxaok! Aprobetxau, eh! Gero eta zerua eta ipoñei begira ibili barik, aprobetxau! Ura juandakuan presia eitxia alper-alperrik dok hamen!

Ura joandakoan presa egitea: umetan ikasitako hitzei naturaltasuna zerien berriz gizon haren ezpainenan.

Javier Mariasen heriotzean, bere liburuen kalitateaz eta ausartenean perfekzioaz ere idatzi zuten. Lazkao Txiki zenak, berriz, “usteldutzean ondu ohi dira mizpira eta gizona” kantatua zuen aspaldi. Niri Mariasena bizitzaz, joaten utzitako ur txiki-handiez, eta heriotzaz pentsatzeko bolada eragin zidan.

Gustuko ditut Woody Allenen film asko. Joan zen udazkenean narrazio-liburu bat kaleratu zuen. Irakurri ez dudan testuetako batean, antza, bi lagun hil eta otarrain banatan berraragiztatzeko omen dira. Horrek ere pentsarazi zidan: Zertarako? Zer balio du? Zein ur utzi behar duzu joaten eta zein presa eraiki, heriotzaren ostean oraindik –orduak ere bai!– horrelako patu absurdo bat ezartzeko posibilitatearen aurrean?

Gero eta zerua eta ipoñei begira ibili barik, aprobetxau, jaurti zidan Robertok. Ondoren Arragueta kalia abestu genuen. 2022ko abuztuaren 29an hil zen.

"Ura joandakoan presa egitea: umetan ikasitako hitzei naturaltasuna zerien berriz gizon haren ezpainenan"

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

“Euskaraz bizi nahi baldin badugu, zientzia ere euskaraz bizi behar dugu”

MATTIN URBIETA GALARRAGA • Fisikaria



2023ko CAF-Elhuyar sarietako bat eskuratu du Mattin Urbieta Galarraga (Deba, 1992) irakasle eta ikerlariak. Zehazki, doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikulu onenaren alorrean jaso du aitortza, *Elektroiekin dantzan nanoeskala argitzeko* lanari esker. Epaimahaiaren iritziz, “artikulu osatua eta landua” aurkeztu du debarrak, eta bertan ondo azaltzen du zertan datzan tesia eta zer ondoriotara iritsi den bere ikerketan.

Zientzia biziki maite du Mattin Urbietak. Fisikan doktorea da eta, bere iritziz, “natura ikusteko, ulertzeko, leiho bat, tresna bat” da fisika; horregatik erabaki zuen zientzia alor horretan murgiltzea. Gaur egun, EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan ari da lanean, Eibarko eta Donostiako egoitzetan, eta libre dituen tarteetan materia eta argiaren arteko elkarrekintza ikertzen duen nanofotonika arloan sakontzen dihardu, “hein handi batean, tesi garaian hasi eta bidean gelditu ziren zenbait kontu amaitu nahian”. Bere ibilbideaz eta irabazi duen sariaz galdezka joan zaio *Berriketan*.

CAF-Elhuyar saria jaso berri duzu. Espero al zenuen?

Esperantza banuen, baina irabaztea espero nuela esatea gehiegixko da. Aurreko urteetako artikuluen maila oso altua zen, eta haien mailara iristea ez zen erraza. Ez dakit lortu dudan, baina epaimahaiari, behintzat, saritzeko moduko artikulua iruditu zaio. **Halako aintzatespen bat jasotzeak zer garrantzi du zuretzat eta, bereziki, zure ibilbidearentzat?** Pertsonalki ilusioz eta poztasunez hartu nuen

berria. Pizgarri bat izan da eta motibazioz bete nau. Ibilbideari dagokionean, ikerkuntzan pisu handiena artikulu zientifikoek edota teknikoek izaten dute eta, beraz, halako sari bat lortzea ederra izan arren, gauzak ez dira gauetik egunera aldatuko. Dena den, hausnarketarako aitzakia eman dit. Edonola ere, lanean jarraitu behar dut.

Zergatik erabaki zenuen zure lana CAF-Elhuyar sarietara aurkeztea?

Egia esan, arrazoiz ezberdinak daude tartean. Baina, nagusiki, erronka moduan hartu nuen. Izan ere, behin baino gehiagotan suertatu zait tesian ikertutako gaia inguruko norbaiti azaldu behar izatea. Bestalde, Aitor Urbieta nire lehengusuak duela hamabost urte irabazi zuen sari bera eta artikulu hari esker ulertu nuen, 15 urterekin, zein zen bere tesiaren funtsa.

‘Elektroiekin dantzan nanoeskala argitzeko’ lana da saritu dutena. Labur-labur azalduko al zeniguke zertan datzan?

Saiatuko naiz. Funtsean, mikroskopia tradizionalak erabiliz bereizi daitezkeen xehetasun edo objektu txikienek ehunka nanometro dituzte: ezin ditzakegu



gauza txikiagoak ikusi, ez honela behintzat. Gauza txikiagoak ikusteko, argia konfinatu edo lokalizatu behar dugu eskala nanometrikoan. Nire tesian ikusi dudanez, plasmioiak eta tximistorratz efektua konbinatuz (zer diren jakiteko, onena artikulua irakurtzea), argia nanometroz azpiko eskalan lokalizatu dezakegu, atomoen eskalan materia aztertzeke. Bereziki, hori posible egiten duten efektuen garrantzia eta eredu ezberdinen mugak aztertu ditut, simulazioen bidez.

Artikulu "osatua eta landua" aurkeztu duzula adierazi du epaimahaiak. Erraza izan al da artikulu batean tesia zertan datzan eta zure ikerketan zer ondoriotara iritsi zaren era laburtuan, osatuan eta ulerterrazean azaltzea? Eta hori euskaraz egitea?

Bere zailtasuna izan du. Arlo bakoitzak bere hiztegia du, egunerokotasunean darabilguna baino zehatzagoa eta teknikoagoa. Hiztegi tekniko hori erabili gabe zenbait kontzeptu azaltzea zaildu egiten da eta, irakurleak ez badu gaiaren aurretiazko ezagutzarik, kontzeptu batzuk azaltzea ia ezinezko bihurtzen da. Beraz, kontzeptuak zentzua galtzeraino sinplifikatu gabe, baina modu

“Nire lehengusuak duela hamabost urte irabazi zuen sari bera eta artikulu hari esker ulertu nuen zein zen bere tesiaren funtsa”

ulerterrazean idaztea izan da erronka nagusia. Irakurleek esan beharko dute lortu ote dudan, irakurri ondoren. **Zientzia gizareratzea izan ohi da dibulgazio lanen helburu nagusia. Arlo hori euskaraz jorratzea garrantzitsua dela uste duzu?**

Bai, oso garrantzitsua da, dudarik gabe. Jendeari, ulertu zaitzan, bere hizkuntzan hitz egin behar diozu. Ez hori bakarrik, euskaraz bizi nahi baldin badugu, zientzia ere euskaraz bizi behar dugu.

Zergatik hautatu zenuen nanofotonika doktore tesia egiterakoan?

Egia esan, master amaierako lanarekin barneratu



Mattin Urbietta CAF-Elhuyar saria eskuetan hartuta. ERREDAKZIOA

nintzen gai honetan eta, gustatu zitzaidanez, tesiarekin jarraitzea erabaki nuen.

Zer arlotan aplikatu daiteke? Eta zer helbururekin?

Aplikazio ugari ditu nanoplasmonikak. Medikuntzan, adibidez, zenbait minbiziren detekziorako eta tratamendurako nanopartikula plasmonikoak erabiltzen hasiak dira. Energia fotovoltaikoaren kasuan, eguzki-plaken errendimendua handitzeko ere erabiltzen dira. Substantzien detekziora bideratutako sentsoareak egiteko, sistema optikoak eta teknologia kuantikoak garatzeko... aplikazio errealean eta posibleen zerrenda nahiko luzea da.

Zenbat denbora behar izan zenuen jatorrizko tesia idatzi eta ondorioak ateratzeko? Dibulgazio lan hau idaztea, aldiz, errazagoa izan al da?

Tesia idazten zazpi bat hilabete eman ditut. Tesirako emaitzak lortzen, simulazioak eta bestelako lanak egiten, ordea, bost urte pasatxo. Nahiko luze joan zen, egia esan. Dibulgazio artikulua dezente gutxiago behar izan du idazketa aldetik, pare bat asteko kontua izan da, nahiz eta ideiak askoz lehenagotik joan diren ontzen.

Fisikari moduan nanoteknologia/nanozientzia alorrean espezializatu zinen. Zergatik zehazki?

Bai, EHUko Nanozientzia eta Nanoteknologia Masterra egin nuen, eta ondoren doktoretza nanofotonikan

“Master amaierako lanarekin barneratu nintzen gai honetan eta, gustatu zitzaidanez, tesiarekin jarraitzea erabaki nuen”

“Umetatik hasi behar gara kultura zientifikoa eta, oro har, kultura eta ezagutzarekiko interesaren hazia ereiten”

egin dut, nanoplasmonikan, zehazkiago. Egia esan, bizitzan une zehatz batean hartu behar izaten diren erabaki horietako baten ondorio izan zen master hori egitea. Horrek Javier Aizpuruak zuzendutako *Theory of Nanophotonics* ikerketa-taldean doktoretza tesia egiteko atak ireki zizkidan.

Nola azalduko zenuke zer den hainbeste entzuten den nanoteknologia/nanozientzia?

Nanozientzia txikitasunaren ikerketa edo ezagutza da. Zer da txikitasuna guretzat? Atomoen eta molekulen eskala. Nanoeskalari, materiaren portaera ez da makroeskalari, hau da, begi hutsez ikusteko gai garen eskalan duenaren berdina. Nanoeskalari fenomeno berri eta interesgarriak agertzen dira, eta horiek erabili ditzakegu teknologia berriak garatzeko.

Irakaslea zara EHU, baina ikerlaria ere bai, ezta? Zer arlotan aritzen zara?

Fisika irakasten dut EHUko hainbat ingeniari-tza gradutan. Ikerketari dagokionean, nanofotonikan jarraitzen dut ikertzen, eskola orduak uzten didaten heinean.

Eta nola uztartzen dira ikerketa eta irakaskuntza? Proiekturen bat ikertzen ari al zara uneotan?

Ahal bezala. Eskola ordu gutxiago ditudan garaiak ikerketarako aprobetxatzen saiatzen naiz. Tesi garaian



Urbietta (eskuinetik lehena), gainontzeko sarituekin batera. ELHUYAR

hasi eta bidean gelditu ziren zenbait kontu amaitu nahian nabil.

Houstoneko Rice University-n ere egon zinen zenbait hilabetez doktoretzako ikerketa egiten. Zer nolako esperientzia izan zen?

Esperientzia aberasgarria izan zen. Lan egiteko beste dinamika batzuk, jende interesgarria eta ideia berritzaileak ezagutzeko aukera izan nuen. Oso ongi hartu ninduten. Lanerako baliabide pila bat dituzte, eta hori agerikoa da. Bizimoduari dagokionean, hemengoarekin gelditzen naiz, dudarik gabe, han lanerako soilik bizi direla baitirudi.

Erraza al da ikertzaile lanetan bertan jardutea? Ala kanpora joatera "behartuta" sentitzen zarete? Gaur egun, nola dago panorama?

Erraza, behintzat, ez da; etengabeko lasterketa bat da. Oro har, egonkortze prozesua luze joaten da. Ikerketan soilik jardun nahi bada, ez nuke esango ezinbesteko baldintza denik kanpora joatea, baina hori egin gabe nahiko konplikatu izaten da bide hori urratzea.

Betidanik izan duzu argi fisika munduan jardun nahi zenuela?

Esango nuke batxilergoa egiten hasi nintzenerako nahiko argi nuela nondik nahi nuen jo, nahiz eta banituen beste interes batzuk ere, historia adibidez.

Azkenean fisika gailendu zen, akaso naturaren oinarriko fenomenoak aztertzen dituelako.

Zer da fisika zuretzat? Zergatik gustatzen zaizu zientzialari izatea?

Natura ikusteko, ulertzeko, leiho bat, tresna bat da fisika niretzat. Zientzialari izatea, ordea, arlo ezberdinak ulertzeko tresnak ematen didalako gustatzen zait.

Zientzia herritarrengandik urrun dagoela esan ohi da. Zer egin daiteke gizartearen eta zientziaren arteko muga hori lausotzeko?

Kultura zientifikoa lantzea izango litzateke nire ustez biderik zuzenena. Hau esatea, ordea, egitea baino errazagoa da. Zientziaren dibulgazioa ezinbestekoa da horretarako, baina tamalez ez zaio merezi duen balioa ematen. Dena den, dibulgazioak ere baditu bere mugak. Zientzian interesik ez duen pertsona batengana modu honetan iristea nahiko zaila da. Pertsona batentzat gai bat arrotza baldin bada, nola piztu bere interesa? Esango nuke umetatik hasi behar gabela kultura zientifikoa eta, oro har, kultura eta ezagutzarekiko interesaren hazia ereiten eta, hurrengo urteetan, interes hori elikatzen. Tamalez, azkenaldian badira kontrako noranzkoan hartutako erabaki ulertezinak, Eureka Zientzia Museoaren itxiera, esaterako. Ea buelta ematen diogun joera horri.



Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako bost hautagaitza aurkeztu dituzte Deban: EAJ-PNV, EH Bildu, Orain Deba, PP eta PSE-EE dira herritarrek aukeran dituzten alderdiak.

M28ko hauteskundeen inguruko gehigarri berezia apirilko *Berriketan*-en:



Bost hautagai-zerrenda izango dira udal hauteskundeetako lehia

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean joan den apirilaren 26an argitaratu ziren udal hauteskundeetara aurkeztu diren hautagaitzak, herriz herri. Deban, guztira, bost zerrenda izango dira aukeran maiatzaren 28an botoa emateko orduan: EAJ-PNV, EH Bildu, Orain Deba, PP eta PSE-EE.

2015eko udal hauteskundeekin alderatuta, berritasunak daude oraingoan, zerrenda kopuruan ez ezik alderdi edo eragile politikoei dagokienean ere. Orain lau urteko deialdian, hain zuzen, lau hautagaitza izan ziren lehia Deban (EAJ-PNV, EH Bildu, Debarren Ahotsa eta PSE-EE). Eta, lortutako emaitzen ondorioz, azken agintaldian sei zinegotzi izan ditu EH Bilduk (alkatetzarekin), lau

zinegotzi Debarren Ahotsa herri-plataformak eta beste hiru, berriz, EAJ-PNV alderdiak.

Oraingoan, baina, Debarren Ahotsa ez da aurkeztuko hauteskundeetara (azken zortzi urteotan ez bezala), eta Orain Deba (lehenbizikoz) zein PP ere lehia izango dira udalerrri mailan.

Alazne Txurruka Allika (EAJ-PNV), egungo alkate Gilen Garcia Boyra (EH Bildu), Isidro Aristi Oruezabal (Orain Deba), Ainhoa Azpiolea Ramos (PP) eta Iñaki Azkue Gonzalez (PSE-EE) dira zerrendaburu eta alkategaiak.

Hiru boto-ontzi Itzianren

Maiatzaren 28an, udal hauteskundeekin batera, Nafarroako Parlamenturako eta Arabako,

Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusietarako hauteskundeak izango dira. Eta, Itzianren, aipatutako bi boto-ontzi horiez gain hirugarren bat ere izango da, auzo alkatea erabakitzeko. Denon Herria plataformak Arantza Egaña aurkeztu du auzo alkategai; bera aritu da kargu horretan amaitzear den azken agintaldian ere.

4.344 hautesle, sei mahaitan

Udalak emandako datuen arabera, M28an Deba eta Itziarko 4.344 herritar daude botoa ematera deituta; horietatik 778k Itziarko hautes barrutian egin ahal izango dute, Luzaro ikastetxean jarriko duten hauteskunde-mahaian, hain zuzen. Deban, berriz, bost mahai izango dira: bina Luzaro ikastetxean, bina Eguneko Zentroan eta bosgarren bat kiroldegian.

Bozketa-egunaren ondoren, ekainaren 17an eratuko dira udalbatzak eta hautatuko dira alkateak, emaitzen aurkako hauteskundeekiko auzi-errekurtsorik ez badago. Batzar nagusiak ere data beretsuetan eratuko dira.



Arcadi Oliveres sarietako bat irabazi du Julia Ron Sotok

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko 28 ikaslek egin-dako gradu amaierako lanik azpimarragarrienak saritu dituzte Arcadi Oliveres Sarietan, eta Julia Ron Soto Gizarte eta Kultur Antropologiako ikasle ohiaren lan batek eraman du sarietako bat. Debarrak idatzitako *Komunitate latinoamerikar migratuen 'migrazio-mina' arintzeko modua*. Idazketa migrazio dolua gainditzeko metodo terapeutiko gisa lana saritu dute, hain justu, gizarte eta lege zientzien arloan. Antolatzaileek zehaztu dutenez, Filosofia eta Letren Fakultateko saileko onenen artean izan da Ronen lana.

Fundazio Autonomo Solidarioak deitutako eta Arcadi Oliveres irakasle eta ekintzaile katalana zenaren omenez banatzen diren sariak justizia globalerako eraldaketarekin lotutako gaiak jorratu ohi dituzten gradu amaierako lanik azpimarragarrienak saritzen dituzte. Aurten seigarrenez antolatu da egitasmoa; diplomarekin batera 250 euroko saria jaso du ikasle saritu bakoitzak.



'Berriketan' eta 'Drogeteniturrri' aldizkariak ere Tokikomeko bazkide

Ermuan maiatzaren 12an egin duen Ohiko Batzar Orokorrean, Tokikomek Debako *Berriketan* eta Ermuko *Drogeteniturrri* toki komunikabideen bazkidetza eskariak onartu ditu aho batez. Gauzak horrela, dagoeneko 30 bazkidek osatzen dute euskarazko toki komunikabideen taldea. Guztien artean 78 komunikabideko sarea osatzen dute; 34 webgune, 30 aldizkari, bost telebista eta bederatzir irratia. Guztira, 220

langilek baino gehiagok dihardute taldeko hedabideetan, eta Euskal Herri osoko 299 udalerritar iristen da uneotan Tokikom.

Hamargarren urtemugako balantze positiboa egin du Tokikomek batzarrean. "Taldeak elkarlan bide sendoak ireki ditu komunikazioaren esparruko beste eragile batzuekin" eta barne kohesioan ere "aurrerapauso nabarmenak" egin ditu. Alde ekonomikotik ere balantze positiboarekin amaitu du urtea.

HAB ibilbideko erakusmahaietan egindako lapurretatik kezkatuta azaldu da udala

HAB Historiaurreko Bailara proiektuaren ibilbidean, Sasiolako bide zaharrean dagoen animalien gunean leize-lehoi eta bisonte buruen garezurrak ebatsi dituzte bertako erakusmahaietatik. Debako udaltzaingoak ziurtatu ahal izan duenez, torlojuak askatuta hartu dituzte bi garezurrak.

Gertakariaren aurrean bere kezka azaldu du Debako Udalak;

batetik, lapurretak sortutako kalte ekonomikoagatik (8.000 euro), eta, bestetik, halakoak errepikatuz gero, zalantzan egon litekeelako proiektua bere jatorrizko ezaugarriekin (erreplikak ikusgai egotea, adibidez) mantendu ahal izatea. Gogorarazi duenez, udalak eta beste hainbat administrazioek egindako diru ekarpenekin gauzatutako proiektua da HAB.



30eko hamarkada Aparkalekuak

Ez da hainbeste denbora pasatu, hamarkada batzuk baino ez. Baserritarrek astoak erabiltzen zituzten herrira euren produktuak saltzera jaisteko. Plaza Berria, *Akerzulo* eta Lojendio jauregiaren artean zegoen aparkaleku zabala ikus daiteke goiko irudian. Astoak lotuta lagatzeko beste hainbat leku ere baziren herrian. Plaza Zaharrean, adibidez, oraindik ere badaude animalia sufritu eta atsegin hauek lotzeko erabiltzen ziren burdin uztaiak.

Alex Turrillas Aranzeta



ekoðenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 **DEBA** (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Hamar euskal ekoizpen izango dira ikusgai Antzerki Astean



Beste behin ere, euskal antzerkiaren erakusleiho izango da Goaz taldearen ekimenez egingo den Antzerki Astea. Ekainaren 1etik 11ra bitartean, hamar antzezlan izango dira aukeran Deba eta Itziarko agertoki ezberdinetan. Antolatzaileen esanetan, proposamen berriak eta berritzaileak izango ditu euskara hutsean programatuko den egitarauak. Aurreko edizioetan baino antzerki talde amateur gehiago izango dira taularen gainean, tartean Goaz bera ere.

Maiatzean ospatu izan den arren, aurten ekainean egingo da Antzerki Astea. "Maiatzeko azken asteak ikasturte amaierako azterketetan harrapatzen ditu urtero herriko gazteak. Haiek dira, bestalde, antzerkira gutxien hurbiltzen direnak. Baina aurtengo egitaraua euren oporraldien hasieran izango da eta, beraz, ez dute antzerkiaren gozatzera ez etortzeko aitzakiarik izango oraingoan", aipatu dute Goaz Antzerki Taldeko kideek.

36. Antzerki Astea izango da aurtengoa eta antolatzaileek nabarmendu dute beste behin ere "herrira antzerki eskaintza eder bat ekartzeko gogotsu" daudela. "Beti egiten dugu proposamen berriak edo desberdinak ekartzeko ahalegina, eta aurten ere lortu dugula esan genezake. Batetik, aurtengo egitarauan inoiz baino talde amateur gehiagok hartuko dute parte (lauk guztira); Goaz-eko kideok Debagoieneko Antzerki Amateur Lehiaketan parte hartzeko aukera izan dugu ikasturte honetan, eta bertan ezagutu ditugun taldeak ekartzea lortu dugu. Bestetik, antzerki tradizioaletik aldendu eta antzerki berritzailean diharduten profesionalak ere izango ditugu gurean eta proposamen original eta indartsuak aurkeztuko dizkigute", gaineratu dute. Iaz bezalaxe, antzerki talde debarrak ere izango du bere lekua egitarauan, lan berria estreinatuko du eta.

Kulturgune egokirik izan gabe, "azpiegitura falta" da, antolatzaileen esanetan, herrian antzerki jaialdi bat antolatzeko arazorik nabarmenena. Hori hala, aurten ere herriko espazio ezberdinetan (Aldats pilotalekuan, Agirre jauregian, Goaz taldearen Osioko lokalean, Itziarko Burugorri...) egingo dira emanaldiak. Zailtasunak zailtasun, Euskal Herriko hamar antzezlan izango dira ikusgai Antzerki Astea, guztiak ere euskara hutsean.

Ekainak 1, osteguna | 19:00 | Arakistain Plaza

> Eutsi Ramon!

Trapu Zaharra (Donostia) • Kale antzerkia

Enpresa handi honek "kolapsoa" darabil aitzakia gisa bere eskaintza paregabea martxan jartzeko: goi mailako bunkerrak eskaintzea. Hori promozionatzeko, probaleku mugikor batean, zuzenean, lehiaketa bat antolatuko du enpresak. Lehiakideak proba ezberdinak egin beharko ditu eta ikusleek, idi-probetan egin ohi den bezalaxe, apustuak egingo dituzte ariketa bakoitzean. Lehiaketa umiliagarriak, kataklismoak, antsiolitikoak... izango dituzte hizpide.



Ekainak 2, ostirala | 19:30 | Ispiluen gela

> Ez, ez naiz akordaitten

Bai eta gainera (Oñati)

Alzheimerra daukan emakume baten istorioa eta haren bizitzako hainbat pasadizo biltzen ditu antzezlanak. Taldekide baten ideiatik abiatutako talde sorkuntza da, zuzendaritzapean eta kanpo begiradarekin prestatua. Obraren helburuen artean daude, besteak beste, alzheimerra duten pertsonen eta haien inguruko enegoeraren berri ematea eta euskarazko antzerkiaren presentzia bermatzea.

OHARRA: Bi emanaldi izango dira ekainaren 2an; 19:30ean hasiko da lehen antzezlan eta ondoren, bigarrena hasi aurretik, luntxa eskainiko dute. 6 euroan salduko dira bi saioetarako eta tarteko luntxerako sarrerak.

Ekainak 2 | Luntxaren ondoren | Ispiluen gela

> Añenak publikoari

Buselektrikue (Bermeo)

Bermeoko antzerki talde amateurrak hala laburbiltzen du Debara dakarren lanaren esentzia: "Zuek ikusiko duzuen ez da antzezlan bat. Gau honetan ez da komedia bat antzetzten. Ikusteko ezer ez duen ikuskizun bat ikusiko duzue. Bukatu dira amets egiteko istorioak, bukatu dira sentimendu merkez hornitutako aktoreak, bukatu da kontaketa lineala, bukatu da antzerkia. Bukatu da antzerkia, behingoz antzerkiarekin hasteko".



Ekainak 3 eta 4, larunbata eta igandea

19:00 eta 20:30 | Agirre jauregia

> **Salbe, publikoa**

Goaz (Deba) • 5 euro

Ikusle maitagarria... Lerro hauek irakurtzen ari baldin bazara, zuretzako da gonbidapena.

Etorri eta murgildu jauregian barrena. Modu horretan bakarrik jakingo duzu zergatik zaitugun hain maitea, hain beharrezkoa, hain...

Zuzendaria: Erika Olaizola. **Antzezleak:** Josu Iriondo, Amaia Arotzena, Joseba Eskudero, Mattin Urbieta, Irati Baroja eta Pili Litago.



Ekainak 6, asteartea | 17:30 | Aldats pilotalekua

> **Pintto Pintto** • Haurrentzako saioa

Anita Maravillas Teatro (Durango) • 4 euro

Galdu egin den txakurkumea da Pintto, istorio honetako protagonista. Jolastea maite du, baina badirudi norbait bere beldur dela eta ez duela berarekin jolasean jardun nahi. Adiskidetasunaren jokoak zein zoragarriak eta zein sinplea den gogorarazten digu txakurrak.

Goxotasunez eta umorez kontatutako istorioa da. Bat-bateko gertakari batek guztiz eraldatu dezake gure bizimodua eta harremanak izateko era, kasu honetan adiskidetasuna bera. Arropa garbitoki batean ezustean agertzen den unetik, Pinttok hankaz gora jarriko du bertako langileen bizitza, errealitatea guztiz eraldatuz.

Ekainak 7, asteazkena | 10:30 eta 11:30

Goaz taldearen Osioko lokala


> **Liburu magikoa**

> **Franki-Patxi hotela**

Aizarnako Antzerki Taldea

Aurten ere, ohiturak mantenduz, Aizarnako Antzerki Eskolako kideak Deban izango dira, eurek prestatu dituzten ikuskizunak Luzaroko ikasleei eskaintzeko asmotan. LH 1, 2 eta 3ko ikasleek *Liburu magikoa* antzeztuko dute eta LH 4, 5 eta 6ko ikasleek, berriz, *Franki-Patxi hotela*.





Ekainak 8, osteguna | 19:00

Itziarko Burugorri

> **Gizasaltsa**

Aitor Vinagret • Doan

Lasai mundu guztia! Izenburua oso "pelikuleroa" dela badakigu, baina eszenatokian dagoen aktorea ere bai.

Ez izutu! Hau komedia bat da! Barreak eragingo ditugu, saiatuko gara behintzat. Nortzuk? Aktorea eta bere pertsonaiak, Epi eta Blas, Juana de Arco...

Eszenatokian, eztarrian ahotsak dituen aktorea. Eszenatokian, azalean pertsonaiak dituen gizakia.

Etorri, zin egiten dizuegu ez dugula publikoarekin kanibalismoa praktikatuko, benetan. Eszenatokian egongo den gizakiak bere alegiazko munduan murgilduko du publikoa komediaz eta akzioz beteriko gizasaltsan. On egin!

Ekainak 9, ostirala | 19:00

Plaza Zaharra

> **Kimera**

La banda teatro circo • Kale antzerkia

Zamalanetako kaia. Lanean, paseoan edo bizitza hobe baten bila iristen diren pertsonak.

*Kimera*k egungo gizarteari begiraten dio, pertsonak handi egiten dituzten gauza txiki horiek zein hauskorrek diren erakutsi nahian. Bidenabar, globala tokikotik alda daitekeela ere erakusten digu.

Pentsarazten digu zergatik joaten ote den hainbeste jende, dena atzean utzita, leku ezezagun, babesgabe eta harremanik gabeko batera; non, hori bai, zalantzakoa eta oso iluna izan arren, etorkizuna beti izango baita jatorrizko tokian baino itxaropentsuagoa.

Ikuskizunak dibertigarria eta, aldi berean, hunkigarria izan nahi du. Bertan, begirada, gorputza, eta trebezia elkartzen dira unibertso berezia eraikitzeko, zirrarez beteriko mundu soinudun batean. Zirkuaren hizkuntza baliatuta, *Linh jaunaren biloba* obraren antzezpen "oso askea" da lan hau.





ARG.: ASIER BASTIDA

Ekainak 10, larunbata | 22:00

Aldats pilotalekua

> Itsas behera

Pez Limbo • 8 euro

Bi gizabanako, beraiek eraikitako mundu batean isolatutako bi gizabanako, irteera baten bila dabilta. Gogo handirik gabe egiten dute, funtsean badakitelako hor ondo daudela. Behintzat, egon badaude: ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Batak bestea dauka eta elkar zaintzeko beharra sumatzen dute.

Gaua, beltza, kosmosaren hutsa, beren benetako etxea, erosotasun-gunea izan daitekeela sumatzen dute. Denbora Bang-Bang txikle bat bezala luzatzen den tokia, non gauzek beste esanahi bat duten (edo ez duten batere, eta horrek galdera deseroso askotatik askatuko lituzke).

Itsasbehera: Etxean tanga, txankleta eta lumazko brokiarekin ibiltzearen existentzialismoa.

Ekainak 11, igandea | 19:00

Ispiluen gela

> Zaharrak berri

Txalo Talo (Berrobi) • 5 euro

Tradizioa, lehengo bizimodua, ohitura zaharrak eta gaur egungo berriak uztartu ezin direnean... gatazkak sortzen dira. Hori da, hain justu, lan honetako eszena ezberdinetan ikusiko dena. Gizakiaren beharrek, ordea, lehengoak izaten jarraitzen dute.

Zuzendaria: Ester Poveda. **Antzezleak:** Alona Izagirre, Ana Goñi, Aran Rodas, Joseba Izagirre, Lurdes Ibañez, Mikel Agirretxe eta Oihane Vergara.



SARRERAK EROSTEKO AUKERAK

Urtero bezala, emanaldi bakoitza hasi aurretik sarrerak aretoan bertan izango dira salgai. Aurten, ordea, antolatzaileek jakinarazi dute ikusleek sarrerak mugikorretik erosteko aukera ere izango dutela. Ondorengo estekaren bitartez eskura daitezke: www.labur.eus/DebaAntzerkiAstea







ON EGIN!

gida gastronomikoa

2023ko Debabarreneko jatetxe eta tabernen gida

Ondo jateko ere, ez daukagu urrutira joan beharrik. Erreparatu bestela hurrengo bi orrialdeoi. Gastronomía eskaintza paregabea daukagu Debabarrenean, tradizioetik eta modernotik, bietatik duena, eta batez ere, eta bereziki, moko finenak ere gustura uzten dituen. Bokatak, mokadutxoak, eguneko menua, karta... egin zure aukera, eta on egin!



AGUIÑASPI Taberna

Urkizu 22, EIBAR

943 128 086

Menu berezia enkarguz, gosariak, plater konbinatuak, razioak, bokatak, hanburgesak, pintxoak...



ALBERT Taberna

Miguel Aginaga 6ac, EIBAR

943 383 177

Eguneko menua, asteburuetako menua eta karta.



BAISI Taberna

Urkizu 11, EIBAR

943 530 816

Espezialitatea: patata-tortilla, entsaladilla, bokatak, hanburgesak... Ardoetan aukera zabala.



BARATZE Gourmet

Bidebarrieta 39, EIBAR

943 845 503

Jatetxe-taberna kontzeptu berria, pintxoak, razioak, karta eta ardo aukera zabala. Etxera eramaten dugu.



BIRJIÑAPE BERRIA

T. Etxebarria 16, EIBAR

943 821 341

Eguneroko menua, bokatak, ospakizunak. Zure aurrekontura egokitzen gara. Etxerako zerbitzua,




BOSSA Gastroteka

Ego Gain 7, EIBAR

943 206 753

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak, bokatak, razioak, pizzak eta hanburgesak.



BURU ZURI taberna

Lersundi kalea, 23, DEBA

943 191 034

Ogitartekoak, plater konbinatuak, gosariak, razioak, pintxo bereziak, Luntxak.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 741 230

KM 0 jakiekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, luntxak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak....



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea, ELGOIBAR

943 256 028

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



KILI KILI Croissanteria

Ibarkurutze 12, EIBAR

943 202 401

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolatea eta txurroak...



LABATAI taberna

J.M. Ostolaza kalea, 1, DEBA.

943 509 910

Gosariak:06:00etatik aurrera, pintxoak, ogitartekoak eta plater konbinatuak.



LANDA jatetxea

Garagartza kalea, 32, MENDARO.

943 756 028

Denboraldiko produktuekin egindako karta. Espezialitatea parrillan: haragi, arrainak eta itsaskiak. Ez da afaririk zerbitzatzen.



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 756 166

Eguneko menua 14€ astegunetan. Asteburu eta jaietako menua 17 €. Menu bereziak enkarguz.



SU BEROA Taberna

Bista Eder 11, EIBAR

943 477 779

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, bokatak, karta, razioak...



TIKI TAKA Taberna

San Andres pasealekua 2, EIBAR

943 284 006

Eguneko menua, asteburu eta menua, karta, razioak, pintxoak...



TXALTXA Jatetxea

Isasi 7, EIBAR

943 201 126

Karta, kartatik kanpo eta menua astegunetan. Astelehenetan itxita.



TXARRIDUNA jatetxea

Ermuaranbide 1, ELGOIBAR.

943 740 490

Eguneko menua astelehenetik ostiralera, larunbatetan menu berezia, karta, kintoak, bataioak, familiako bazkariak...

Aitzol Arakistainek hirugarren postua eskuratu du Korsikan

Maiatzaren 4tik 7ra jokatu den Corsica Cup txapelketan parte hartu du Motonautikako Euskal Selektzioak. Euskal taldea ordezkatzeko aritu dira Aitzol Ara-kistain pilotu debarra eta Andoni Gutierrez abadiñarra, eta emaitzarik azpimarragarriena Arakistainek lortu du. "Ezustekoa emanda", parte hartu duen bi modalitateetan podiumean sartzea lortu du. Zehazki, hirugarren postua bereganatu du GPI mailako Offshore eta Rallyjet modalitateetan.

Arakistain pozik agertu da eta aitortu du ez zuela espero hain emaitza onak lortzea. Bi arrazoi nagusi aipatu ditu debarrak: batetik, aurkarien maila, eta, bestetik, itsasoaren egoera. "Nahiko bare zegoen eta, egia esan, emaitza hobeak lortzen ditut itsaso txarrarekin".

Lehiakideen maila kontuan hartuta, gainera, hirugarren postua lortzea "izugarria" izan dela azpimarratu du. "Frantziako pilotuak eta taldeak, batez ere, oso maila altuan ari dira lehiatzen. Orain gutxi arte nahiko urruti ibiltzen ginen gu sailkapenetan, baina orain beraiekin batera



Aitzol Arakistain, Alba Bermejo Euskal Federazioko presidentarekin batera. BRC

lehenengo postuen alde borrokatzen ari gara". Gaineratu du "aho zapore onarekin" eta aurreikusita dituen hurrengo probak prestatzen hasteko "gogo handiarekin" itzuli dela Korsikatik.

140 pilotu baino gehiago

Frantziako Powerboat Txapelketaren baitako Corsica Cup proba Mediterraneoan lehiatzen den txapelketa nagusietako bat izatera iritsi da urte gutxian. Hain zuzen ere, ezinbesteko proba bihurtu da munduko onenentzat; aurten, esaterako, mundu osotik etorritako 140 pilotu baino gehiagoren parte-hartzea izan du.

Sinadura bilketa hasi dute, tenis pista "egokitua eta hobea" eskatzeko

Deban teniseari aritzen diren haurren guraso talde batek tenis pista "egokitua eta hobea" eraikitzeko eskatu dio udalari. Kanpaina bultzatu dutenen iritziz, azpiegitura ez dago egoera onenean. "Zorua oso hondatuta eta labaindago. Are gehiago, erabat segurua ere ez da une honetan. Aurrekontua egin ahal izateko zorua zulatu egin behar izan zuten eta, harrezkero, ez da ondo geratu".

Herrian tenisa "modu ludikoan zein maila altuagoetan lantzeko aukera" izatea beharrezkoa dela ere gogorarazi dute. "Herrian teniseari dabilten 90 haur inguru daude, baina kopuru hori hazi egiten da udara garaian". Horregatik guztiagatik hobekuntzak ahalik eta lasterren egitea eskatu dute. "Bost haur, esaterako, Azpeitian entrenatu behar izaten dira astero-astero, herriko pistak horretarako egokiak ez direlako. Une honetan horixe da maila altuagoan entrenatu eta trebatzeko aukera bakarra".

Maiatzaren hasieran eman zioten hasiera kanpainari eta bilketa "ondo" doala azaldu dute. Sinatu nahi dutenen-tzat honako tokietan utzi dituzte inprimakiak: Albizu harategian eta Sasoiko ekodendan.

Torrealdy

**AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN**

ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

ONDARRROA - 94 683 29 75
ERULUA - 94 317 44 35
Eta beste herri guztietan.
www.torrealdy.es

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan

MAIEDER Eider Sampayo
horts klinika Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia
Periodontzia · Endodontzia
Estetika eta zuriketak
Protesiak · Odontopediatria
Azido hialuronikoa
Aho-aurpegi eta ATM alterazioak

Zarautz
Kale Nagusia 9-1
943 13 32 69
722 81 56 60
dental@maieder.com
www.maieder.com

Mailaz igotzea lortu dute saskibaloia eta futbol elkarteetako lau taldek



Zorioneko daude herriko kirol elkarteak, denboraldi bikain baten ostean mailaz igotzea lortu ondoren. Jomugan jarritako helburua bete duen horietako bat Debasketeko gizonen lehen taldea izan da. Denboraldia hirugarren postuan amaitu zuen taldeak eta, lau finalean sartu ondoren, bigarren ahaleginean lortu du Gipuzkoako lehen mailara bueltatzea ziurtatzen dion azken txartela.

Mailaz igotzea lortu duen beste taldeetako bat

Amaiak Bateko gizonen gazte mailako taldea izan da; jardunaldi baten faltan, iaz galdutako ohorezko mailara bueltatzeko txartela berreskuratu du. Jokalariek denboraldi ona osatu dute gorengo mailan eta, aldizkari honen itxieran, txapelketako kopa irabazteko aukerekin zeuden. Amaiak Bateko gizonen kadeteen bigarren taldea eta emakumezkoen kadete taldea ere mailaz igo dira.

Euskal Ligara igotzeko bidean

Amaiak Bat kirol elkarteak ordezkariek jakitera eman dutenez, gizonen haur mailako bigarren taldeak ere datorren denboraldian ohorezko mailan jokatzeko txartela eskuratu du.

Lorpen horiek guztiak aipatzeaz gain, gizonen lehen kadete taldeak ohorezko mailatik Euskal Ligara igotzeko aukera duela gaineratu dute. Aldizkari honen edizioaren itxieran, Ordiziaren aurkako partida jokatzear zegoen taldea eta, irabaziz edo berdinduz gero, ohorezko mailan lehen postuan geratuko litzateke. Hori hala, Euskal Ligara igoko litzateke zuzenean.



DEBA | Bulego berria

Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

📷 asesoriagestilan

🌐 gestilan.es

✉ gestilan@gestilan.es

Debadaba Festaren olatuak herri osoa zipriztinduko du ekainaren 16an eta 17an



Zurrumbilo Elkartearen eta Yako eta Ipar Surf eskolen arteko elkarlanari esker udazkenean egosten hasitako Debadaba jaia laster bihurtuko da errealitate. Ekainaren 16an, Luzaroko ikasleentzat hondartzan egingo dituzten jolasekin hasiko da bidea egiten egitaraua, eta ekainaren 17an gau aldera egingo den DJ emanaldiarekin amaituko da. Tartean, dena den, beste 11 jarduera ere izango dira aukeran. Antolatzaileen esanetan, surfaren, baina, batez ere, herritarren topagune bihurtu nahi dute hitzordua.

Informazio gehiago
Debadaba Festaren
Instagram kontuan
[@debadabafesta](https://www.instagram.com/debadabafesta)



Surfaren bueltan herritar guztiei zuzendutako jaialdi bat antolatu dute estreinakoz herriko surf eragileek: Debadaba Festa. Ekainaren 16an eta 17an, hainbat jardueraz osatutako egitarauaz gozatzeko aukera izango da Deban.

Surfaren munduan diharduten Zurrumbilo Elkartea, Yako surf eskola eta Ipar Surf & Skate eskola dira jaialdiaren bultzatzaile nagusiak eta, azpimarratu dutenez, surfa eta kirol ezagun horren inguruko kultura herritarrei gerturatzea da helburu nagusia. "Jaiaren zutabe nagusia herritik eta herritarrentzako ekimen bat prestatzea izan da. Jai giro alai eta dibertigarria sortzeko asmoarekin, herritar guztientzako festa bat antolatzea izan da gure asmoa".

Sustatzaileen esanetan, herriko surfaren panorama "nabarmen" aldatu da azken urteotan, eta hori izan da ekimena antolatzeko arrazoi nagusietako bat. Azaldu dutenez, Deban surfa praktikatzen

duten herritarren kopurua "asko" hazi da azkenaldian, eta horrek surfaren bueltako "komunitate polit bat" sortzea eragin du. Hala ere, ohartarazi dute herriko "surf komunitate haragoko herritarrak eta zaleak" ere batuko dituen jaia izango dela Debadaba. "Hainbat urtez, Zurrumbilo Eguna ospatu izan dugu, baina jai hori publiko zehatz bati zuzenduta dago; hau da, elkarteko bazkideei eta Debako surf komunitateko kide zehatz batzuei zuzendutako eguna izan ohi da. Debadaba Festan, ordea, herritar guztientzako programa bat prestatu nahi izan dugu". Nolanahi ere, nabarmendu dute Debadabak ez duela Zurrumbilo Eguna ordezkatzeko, "ikuspegi eta helburu desberdinak dituzten bi ekintza baitira".

Herrian surfaren inguruan aurrez antolatu izan diren ospakizunen eta txapelketen antzeko osagai batzuk ere izango ditu Debadabak, baina, oro har, argitu dute ez dela gauza bera izango. "FederArte jaialdi



Andrea Larrinaga (Zurrnubilo), Aitor Lopez de Lacalle (Yako) eta Ander Alberdi Txintxe (Ipar Surf & Skate) Debadaba iragartzen. ERREDAKZIOA

ezagunarekin alderatuta, esaterako, hainbat berrikuntza txertatu nahi izan ditugu oraingoan. Besteak beste, asteburu oso bat hartuko duen egitaraua prestatu dugu".

Publiko zabalari begira

Egun bakar batean egin ordez, ekaineko festak bi eguneko programazioa izango du eta erabaki horren atzean dagoen arrazoi nagusia zein den ere azaldu dute: "Publiko zabalari zuzendutako jarduera asko antolatu nahi izan ditugu eta, hortaz, egitaraua bi egunetan banatzea erabaki dugu".

Herritar guztiei "espazio bat eskaintzea" izan da erronka. "Horiei guztiei merezi duten espazioa eskaintzeko, beharrezkoa ikusi genuen bi eguneko egitarau zabal bat antolatzea. Ostiralean eta larunbatean izango dira ekintzak; batez ere ikastetxeetako gazteek ere parte har dezaten txertatu dugu ostiral arratsaldea egitarauan".

Surfarekin lotura duten diziplinak ez ezik, bestelako osagai

batzuk ere presente izango dira festan: "Beste kirol batzuk, ekintza kulturalak, merkatua... eta jai giroa sortzen laguntzeko jarduerak osatzen dute egitaraua". Besteak beste, jolasak, Capoeira eta Arbaso Training saioak egingo dira hondartzan, skate Miramar Hotelean, Exeri saioa zumardian eta Filipe Court-en kontzertua izango da Kultur Elkartean. Halaber, Gazteen Surf Txapelketa, artisau azoka, emakumeentzako* surf hastapen ikastaroa, padel lasterketa herrikoia, karropoteoa eta DJ festa ere izango dira aukeran.

Doako saio irekiak

Prestatu dituzten jarduera guztiak "berezikiak" izango diren arren, antolatzaileek aparteko garrantzia eman nahi izan diote ekainaren 17an egingo den Emakumeen* surf hastapen ikastaroari. Aldi berean, iragarri dute beharrezko materiala eskura izango dutela ikastaroan parte hartzen dutenek. "Oholak eta neoprenoak eskura izango dituzte.

"Surf komunitatetik haragoko herritarrak eta zaleak" batzeko helburua dauka Debadabak

Surfarekin lotutako diziplinak izango dira nagusi, baina beste osagai batzuk ere izango ditu festak



Antolatzaileak festa iragartzeko kartelak eskuetan dituztela. ERREDAKZIOA

Prestaketa lanak errazte aldera, jarduera batzuetan parte hartu ahal izateko izena aurrez ematea komeni da

Beraz, gogotsu badaude, ez dezatela zalan-tzarik izan eta animatu daitezela saioan izena eman eta parte hartzera".

Ekainaren 16rako aurreikusitako saio edo jardunaldi irekiei ere aipamen berezia egin nahi izan diete. "Deban egin daitezkeen kirol diziplina ezberdinak probatzeko doako saioak egingo dira, adin tarte guztiei zuzenduta". Saio horietan, adibidez, Capoeira, ariketen bidez gorputz osoko mugikortasuna lantzeko 50 urtetik gorakoei zuzendutako Exeri saioak eta gizakiaren mugimendu naturaletan oinarrituriko Arbaso Training entrenamendu funtzionalak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek.

Informazio gehiago
Debadaba Festaren
Instagram kontuan
@debadabafesta



Era berean, antolakuntzako kideek azpimarratu dute "berezia" izango dela, besteak beste, ekainaren 17rako antolatu duten padel lasterketa ere, eta parte hartzaileei mozorrotzeko deia egin diete.

Prestaketa lanak errazte aldera, Debadabak bere baitan hartuko dituen jarduera batzuetan parte hartu ahal izateko izena aurrez ematea komeni da, nahiz eta egun berean ere emango duten horretarako aukera. "Maiatzaren 22an zabaldu dugu izen-ematea eta Yako surf denda eta gure sare sozialetan ere horretarako bidea eskaintzen dugu. Instagramen, esate baterako, festari buruzko informazioa zabaltzeko kontu bat zabaldu dugu (@debadabafesta). Bertan, tarteka, jaiaren nondik norakoak azaldu eta informazio baliagarria joango gara zabaltzen".

Festa giroa herri osora zabaltzeko helburuari helduta, ekintza guztiak hondartza eta inguruan egin ordez, bestelako espazioetan ere burutuko dituztela iragarri dute arduradunek. "Jaialdia herriko gune ezberdinetan egitea eta horretarako leku ezberdinak erabiltzea ere garrantzitsua dela uste dugu, ekimenaren presentzia handitu eta zabaltzeko". Kultur Elkartean, zumardian, herriko kaleetan eta ibaian egingo dira, besteak beste, jarduerak. Eguraldi txarra egingo balu, ordea, Aldats pilotalekuan, Luzaro eskolako jolastokian edo pasealeku estalian izango dira hitzorduak.

Eragileen parte hartzea

Jaialdiaren beste helburuetako bat herriko eragile ezberdinen parte hartzea sustatzea da. Hori dela eta, programazioan proposatu dituzten ekintza guztiak antolatzeko orduan



beste hainbat eragile eta norbanakorekin jarri dira harremanetan. "Gure asmoa jaialdi polit eta herrikoa sortzea izan da, betiere elkarlanean. Herriko talde eta eragile ezberdinak elkartu eta haiek gauzatzen dituzten ekintzak planteatzeari garrantzia ematea interesgarria eta beharrezkoa iruditu zaigu".

Zehaztu dutenez, honako eragileek ere parte hartuko dute festan: Debako Udalak, Luzaro ikastetxeak, Gaztelekuak, Kultur Elkarteak, Gaztetxeak, Arbaso Training-ek, Ikigai zentroak, Grupo Senzala Capoeirak eta Ondargain eta Itxas Gain taberneak. Aipatutako talde eta eragileez gain, herriko beste hainbat norbanakoren laguntza ere izan dutela gaineratu dute.

Gustura elkarlanarekin

Antolakuntzan lanetan ari direnak gustura daude aspaldidanik mantentzen duten elkarlanarekin eta bat datoz euren arteko harremana "ezin hobea" eta "gero eta indartsuagoa" dela nabarmentzerakoan. "Zurrumbilo Eguna antolatzeko orduan, besteak beste, Yako eta Iparren laguntza izan ohi dugu; hor daude beti, laguntzeko prest. Eta, ondorioz, denon artean eramaten dugu aurrera eguna. Jaialdia, gainera, gero eta arrakastatsua bihurtzen ari da azkenaldian, eta eboluzio horretan, zalantzarik gabe, ezinbestekoa izan da Yakoren eta Iparren laguntza", azpimarratu dute Zurrumbiloko kideek.

Ildo beretik, elkarlanaren fruitu da, hain zuzen, ekainaren hirugarren astebururako prestatutako jaialdi berria ere. Antolatzailak festarekin bat egiteko deia egin diete herritarrei.



EKAINAK 16 (OSTIRALA)

JOLASAK

14:00-16:00 Luzaro eta Gaztelekuaren eskutik. Hondartza.

CAPOEIRA •

16:30-17:30 HH5-LH3 adin tarteko haurrentzat. Hondartza.

ARBASO TRAINING •

16:30-17:30 LH4-DBH4 adin tarteko gaztetxoentzat. Hondartza.

SKATE •

18:00 Miramar Hotela.

EXERI •

18:30-19:30 Ariketen bidez gorputz osoaren mugikortasuna lantzeko saioa, 50 urtetik gorakoentzat. Kalbeton zumardia.

KONTZERTU AKUSTIKOIA

22:00 Filipe Court. Kultur Elkarteak.

OHARRA: Eguraldi txarra eginez gero, Capoeira, Arbaso Training, skate eta Exeri tailerrak Aldats pilotalekuan edota Luzaro ikastetxean egingo dira.

EKAINAK 17 (LARUNBATA)

SURF TXAPELKETA •

09:00-13:00 10-16 urte bitarteko gaztetxoentzat.

ARTISAUEN MERKATUA

10:00-15:00 Hondartzako pasealekua (eguraldi txarra eginez gero, estalitako pasealekuan egingo da).

EMAKUMEENTZAKO* SURF HASTAPENA •

11:00-13:00 Ikastaroa.

Ondoren, hamaiketako Itxas Gain tabernan.

PADEL LASTERKETA HERRIKOIA

17:30 Antolatzailak mozorrotuta etortzea eskatu dute. SUP-ak bertan egongo dira eskuragarri.

KARROPOTEOA

20:00 Itxas Gain tabernatik hasita.

DJ FESTA

23:30 Txato eta Flako. Ondargain taberna.

OHARRA: Maiatzaren 22az geroztik, zabalik dago puntua (*) duten ekintzetan parte hartzeko izen-ematea; jaialdiaren sare sozialetan eta Yako dendan ere eskaintzen dute horretarako aukera. Dena den, egunean bertan ere eman ahalko da izena.

Maiatza / Ekaina

MAI. 26 (OSTIRALA)

BATUKADA IKASTAROA
18:30 Agirre jauregia.

MAI. 27 (LARUNBATA)

KAYAK IRTEERA

10:00 LHko 3-4-5-6ko umeentzat. Eskola Kirola eta Debakayak-en eskutik.

MAI. 28 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'Babylon'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

MAI. 30 (ASTEARTEA)

BASTIÑUIXAN

16:30 'Zabu-Zibu' (3-5 urte). Zumardia.
17:30 'Txirrintxon' (6-9 urte). Zumardia.

MAI. 31 (ASTEAZKENA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'Solteroan dantzalekuak' (Joxean Agirre). Ostolaza Udal Liburutegia.

EKA. 1-11

ANTZERKI ASTEA

Egitarau osoa ale honetako 15-19 orrialdeetan.

EKA. 3 (LARUNBATA)

MERKATU TXIKIA

09:00 Paseo estalia.



ARTE ERAKUSKETA

12:00 Zeramika, pintura eta tailla ikastaroetako ikasleen lanak. Plaza Zaharra.

BATUKADA IKASTAROA

18:30 Agirre jauregia.
Ondoren, kalejira.

EKA. 4 (IGANDEA)

ERROMESALDIA

12:00 Itziarko santutegira.
Ondoren, meza eta Aitzuri abesbatzaren emanaldia.

ZINEMA

19:00 'El peor vecino del mundo'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

EKA. 5 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

EKA. 8 (OSTEGUNA)

LIBURU AURKEZPENA

19:00 'Raquetistas' (Olatz Gonzalez). Kultur Elkartea.



EKA. 11 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'Zinegoak' film laburren sorta. Kultur Elkartea.

EKA. 12 (ASTELEHENA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'Las dos ancianas' (Velma Wallis). Ostolaza Udal Liburutegia.

EKA. 13 (ASTEARTEA)

SAN ANTONIO EGUNEKO MEZA BEREZIA
11:00 Sasiola.

EKA. 16-17

DEBADABA SURF

Egitarau osoa ale honetako 24-27 orrialdeetan.

EKA. 16-17-18

MENDI IRTEERA

Pico Murcia eta Tejera de Tosante (Palentzia). Burdin Kurutzen eskutik. Izen-ematea: maiatzaren 29ra arte.

EKA. 17 (LARUNBATA)

DANTZA JAIALDIA

22:00 Kulunkaren eskutik. Aldats pilotalekua.



EKA. 18 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'El menú'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

EKA. 19 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

EKA. 23 (OSTIRALA)

SAN JUAN BEZPERA

22:00 Sua eta erromeria. Foruen Plaza.

EKA. 24 (LARUNBATA)

SAN JUAN

12:00 Meza eta hamabitakoa. Santa Katalina basiliza.

BAZKIDEEN ASANBLADA

12:00 Amaiak Bateko bazkideen batzarra.
Ondoren, bazkaria. Aldats pilotalekua.

KONTZERTUA

22:00 Perez-rock eta Debako Musika Banda. Zumardiko karpa.

EKA. 25 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'Close'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkartea.

EKA. 28 (ASTEAZKENA)

SAN PEDRO BEZPERA

22:00 Txistulariak, dantzak eta zahagi erretzea. Plaza Zaharra.

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA FERIA

Maiatzak 28 (igandea)
09:00-14:00 produktuen salmenta, ganadu erakusketa...

EIBAR

SAN JUAN JAITAKO KONTZERTUAK

Ekainak 16 (ostirala)
22:00 Su Ta Gar. Untzaga plaza.
Ekainak 17 (larunbata)
23:00 Fangoria. Untzaga plaza.

Jarraitu gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkartea



HURRENGO HITZORDUAK




berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan ekainaren 19a baino lehen. berriketan@zuhatza.com 943 19 13 83

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Labide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04



ZAINTZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGOA ZUAZO ekainak 2, 3, 4, 12, 13, 14, 15.

ZALDUEGI maiatzak 29, 30, 31 / ekainak 1, 16, 17, 18.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01
BURGOA ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:
BURGOA ZUAZO
maiatzak 27 eta ekainak 3
ZALDUEGI
ekainak 10 eta 17



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com
20820 Deba, Gipuzkoa T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.




PILARIK GABEKO AUDIFONOAK
PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12

Deba-Itziar BIRA



APIRILEKO SARIIDUNAK

- 1. Saria:** Edurne Aristi, Josefina Lazkano, Nora Mugarza, Oier Iriondo, Miren Gurutz Peña.
2. Saria: Ainhoa Salegi, Nerea Agiriano, Xabier Ciaran, Antton Aizpurua, Iker Zubikarai, Iratxe Astigarraga, Jon Kauldi Lamariano, Marijo Becerra, Jone Txurruka, Roke Salegi.

APIRILEKO ERANTZUN ZUZENAK

- 1 > Lehen Federazioa
 2 > Buztanikara zuria
 3 > Jose Migel Barandiaran
 4 > Manuel de Cardenas
 5 > Azkena balitz bezala
 6 > 1925



1 > Mattin Urbietaren zein artikuluk lortu du aurtengo CAF-Elhuyar Saria?



2 > Zenbatgarren Itziarko Erromeria Eguna izan da aurtengoa?

- a) Bost
- b) Zazpi
- d) Hamar
- e) Hamahiru



3 > Zein da Strikers punk-rock musika taldeak 2011n kaleratutako diskoaren izenburua?



4 > Zein da 2010ean Deba eta Zumaia artean istripua izan zuen itsasontziaren izena?

- a) Gure ametsa
- b) Txori gorri
- d) Iزارo
- e) Motxo



5 > Zeintzuk dira Debadaba Festaren hiru antolatzaile nagusiak?



6 > Zein urtetan egin zen Deban ikastolen aldeko Kilometroak jaia?

- a) 1982
- b) 1986
- d) 1989
- e) 1990

MAIATZEKO BIRA

Parte hartzeko: www.labur.eus/bira_maiatza
Erantzunak bidaltzeko azken eguna: ekainak 14
 Irabazleen izenak datorren alean argitaratuko dira.
 Animatu eta parte hartu!

SARIAK

- Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean MyMoon markako hiru produktu sorta banatuko dira.
- Parte hartzaile guztien artean MyMoon markako hamar produktu sorta banatuko dira.

Janire & Maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pensioa

Tel.: 688 800 619
 info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

SO URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Oartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauefan tragoak

Lersundi Kalea, 23
 Tel.: 943 191 034
 20820 DEBA

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
 Hondartza kalea, 2
 Deba

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

INGELES
AKADEMIA

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



943 19 22 63

atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com




LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Arteondo

Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



**A. Esnaola
P. Echeverria**

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808

@pyadent



ALAZNE TXURRUKA ALLIKA

Debako alkatezarako hautagaia



EIDER MENDOZA LARRAÑAGA

Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagaia

Aurrera, batera!
Deba



ej
pnv